Galdakaoko Udala

www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

Iñigo Hernando Arriandiaga (1, guztira 1)
Alkate / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 27/04/2022
HASH: 5f351e8bb814f7f9c46adac41f4ab895

**DEKRETUA: Ordenantza proiektuaren aurretiko kontsulta publikoa.**
**Esp. 601/2021**

Udalak interesa du Galdakaoko Udalaren Kultura Ondarearen Katalogoa eta Babeserako Araudia arautzeko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluaren arabera, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

b) Plana onartzeko beharra eta egokitasuna.

c) Arauaren helburuak.

d) Beste aukera arautzaile eta ez-arautzaile batzuk.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, bere 76. artikuluan zera xedatzen du: Katalogoek hirigintza-antolamenduak babestu beharreko ondasun naturalak edo artifizialak inbentariatzen eta identifikatzen dituzte. Haien ezaugarriak ere jasotzen dituzte, eta, beharrezkoa bada, zein maila edo kalifikazio dagokien –aplikatzekoa den legearen arabera– eta babesa arautzeko zehaztapenak zein planetan dauzkaten ere zehazten dute.

Era berean, legezko testu beraren 100. artikuluan zera esaten da: Katalogoak plan orokorrarekin batera izapidetzen eta

**DECRETO: Consulta pública previa al proyecto de ordenanza**
**Exp. 601/2021**

Existe interés municipal en regular el Catálogo de Patrimonio Cultural y Normativa de Protección del Ayuntamiento de Galdakao. De acuerdo al artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.

c) Los objetivos de la norma.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

El artículo 76 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco dispone que los catálogos inventarian e identifican los bienes naturales o artificiales objeto de protección por la ordenación urbanística, recogiendo sus características, precisando, en su caso, la categoría o calificación que les corresponde, de acuerdo con la legislación aplicable, y especificando el plan que contiene las determinaciones reguladoras de su protección.

Asimismo el artículo 100 del citado cuerpo legal establece que para la aprobación de los catálogos, en el supuesto de que no se tramiten y aprueben

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

onartzen ez badira, edo aldatzeko, toki-araubidearen araudian udal-ordenantzetarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Toki-araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 s) artikuluaren arabera,

XEDATZEN DUT:

Bakarra.- Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluaren arabera, kontsulta publikoa egitea, Galdakaoko Udalaren Kultura Ondarearen Katalogoa eta Babeserako Araudia onartu aurretik. Ordenantza hori 15 egun balioduneko epean egingo da, udal webgunean argitaratu eta biharamunetik hasita:

https://www.galdakao.eus/arau-proiektuenkontsulta-publikoa/

Galdakaon, sinadura elektronikoaren datan

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

simultáneamente con el plan general, o para su modificación, se seguirá el procedimiento establecido en la normativa de régimen local para las ordenanzas municipales.

De acuerdo al artículo 21.1 s) de la Ley 7/85, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

DISPONGO:

Único.- En virtud del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, someter a consulta pública previa la aprobación del Catálogo de Patrimonio Cultural y Normativa de Protección del Ayuntamiento de Galdakao, por un plazo de 15 días hábiles desde el siguiente al de su publicación en la web municipal:

http://www.galdakao.eus/participacionproyectos-normativos

En Galdakao, a fecha de firma electrónica

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRONICAMENTE

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

Galdakaoko Udala
www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, GALDAKAOKO UDALAREN KULTURA-ONDAREAREN KATALOGOAREN ETA BABES-ARAUDIAREN PROIEKTUARI BURUZKOA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren esparruan, ordenantza-proiektua egin aurretik kontsulta publiko bat egiten da, etorkizuneko arauak uki ditzakeen herritarren eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzeko helburuarekin, honako hauei buruz:

• Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
• Onartzeko beharra eta egokitasuna.
• Arauaren helburuak.
• Izan daitezkeen bestelako aukera erregulatzaileak edo ez-erregulatzaileak.

**1. EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.**

Konpondu nahi den arazoa, lehenik eta behin, udal-ondarea babesteko dokumentu integralik eza da. Ondarea nortasun-seinale bat da eta komunitateen kohesioari laguntzen dio, UNESCOren nazioarteko hitzarmenetan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen zehaztapenetan ezartzen den bezala. Hala ere, ondarearen babesak, aplikatu beharreko legedia edozein dela ere, gizarte-kontzientziazioa izan behar du abiapuntu, botere publikoen parte-hartzearekin. Horrela bakarrik lortuko dugu komunitate baten kultura-, natura- eta paisaia-balioak eraginkortasunez babestea. Beraz, oso interesgarria da gizarteak parte hartzea ondarea babestearen garrantziaz jabetzean, eta hori administrazio publikoek sustatu behar dute.

**2. ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA.**

Behar-beharrezkoa da kultura-, natura- eta paisaia-ondareari buruzko katalogo bat idaztea, bai eta udalak azken proposamena onartzea ere; izan ere, lanerako tresna erabilgarria izango litzateke administrazioarentzat obra-lizentziak emateko garaian, higiezin bakoitzaren babes-mailak kontuan hartuta eta ondarea behar bezala babestuko litzatekeela ziurtatuta.

Dokumentu berriarekin, indarrean dagoen araudira egokituta egoteaz gain, babestutako higiezin bakoitzaren katalogo-fitxa oso batzuk eduki beharko lirateke, eta fitxa horiek beharrezko informazio argi eta zehatz guztia emango diote udalari, haietan egin litezkeen esku-hartzeen baimenak eta lizentziak emateko. Gainera, lehen esan bezala, dokumentu berriaren garapenak babestutako ondasunetan esku hartzeko tresna objektibo bat eskainiko du, herritarrek jakin ahal izan dezaten zer dakarren ondasun bat kultura-babesen katalogoan sartzeak.

**3. HELBURUAK.**

Babesen Katalogoa egiteak Galdakaoko udalerriko ondarea osatzen duten arkitektura-, arkeologia-, etnologia-, paleontologia-, natura- eta paisaia-elementuen multzoaren gozamena eta babes eraginkorra sustatu eta ahalbidetzea du helburu.

Katalogoaren helburua udalerriko ondare higiezina babestea da, eta, horretarako, araudi argi bat ezartzen du babestutako elementuetan egin beharreko edozein motatako esku-hartzeak arautzeko,

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

elementu horiek babestea eta, aldi berean, babestutako elementu bakoitzaren erabilera egokiak ezartzea edo mantentzea, haren ondare-intereserako.

Dokumentu berria garatzeak babestutako ondasunetan esku hartzeko tresna objektiboa emango du, eta, horri esker, herritarrek jakin ahal izango dute zer dakarren ondasun bat babes-katalogoan sartzeak.

## 4. IRTENBIDE ALTERNATIBO POSIBLEAK

Planteatzen den dokumentua egiteko ekimenaren alternatiba gisa, honako hauek hartu behar dira kontuan:

1. aukera. Egungo egoerari eustea litzateke. Alternatiba hori ez da bideragarria; izan ere, ondarea hondatzea eta legezko betebeharrak ez betetzea ekar dezake.

**Sinadura elektronikoa**

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA SOBRE EL PROYECTO DE CATÁLOGO DE PATRIMONIO CULTURAL Y NORMATIVA DE PROTECCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO.**

En el marco de lo dispuesto en el art. 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de ordenanza, se lleva a cabo una consulta pública, con el objetivo de recoger la opinión de la ciudadanía y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma, sobre:

• Problemas que se quiere solucionar con la iniciativa.
• La necesidad y oportunidad de su aprobación.
• Los objetivos de la norma.
• Las posibles soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.

**1. PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA.**

El problema que se pretende resolver es, en primer lugar, la falta de un documento integral de protección del patrimonio municipal. El patrimonio constituye una señal de identidad y favorece la cohesión de las comunidades, así se establece en los convenios internacionales de la Unesco y en las determinaciones de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco. No obstante, la protección del patrimonio, independientemente de la legislación aplicable, debe partir de una concienciación social con participación de los poderes públicos. Sólo de esta forma conseguiremos una efectiva protección de los valores culturales, naturales y paisajísticos de una comunidad. Es por tanto, de sumo interés la participación social en la toma de conciencia sobre la importancia de proteger el patrimonio, algo que se debe de fomentar desde las administraciones públicas.

**2. NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN.**

La redacción de un Catálogo referente al patrimonio cultural, natural y paisajístico, así como la aprobación municipal de la propuesta final, se considera totalmente necesaria ya que supondría una herramienta útil de trabajo para la administración a la hora de otorgar licencias de obra teniendo en cuenta los niveles de protección de cada inmueble y asegurando una correcta protección del patrimonio.
Con el nuevo documento, además de estar adaptado a la normativa vigente, supondría disponer de unas completas fichas de catálogo de cada uno de los inmuebles protegidos, que facilitarán al ayuntamiento toda la información necesaria, clara y concisa, para otorgar las autorizaciones y licencias de actuación de las posibles intervenciones en ellos. Además, como se indicaba anteriormente, el desarrollo del nuevo documento proporcionará una herramienta objetiva de intervención en los bienes protegidos, que permitirá al ciudadano conocer lo que supone que un bien esté incluido en el catálogo de protecciones culturales.

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

**3. OBJETIVOS.**

La realización del Catálogo de Protecciones viene a potenciar y posibilitar el disfrute y la protección efectiva del conjunto de elementos arquitectónicos, arqueológicos, etnológicos, paleontológicos, naturales y paisajísticos que forman parte del patrimonio del término municipal de Galdakao.

El objetivo del catálogo es la protección del patrimonio inmueble del municipio, estableciendo una normativa clara para la regulación de las intervenciones de cualquier naturaleza en los elementos protegidos que permita su preservación, al mismo tiempo que la implantación, o mantenimiento, de los usos adecuados de cada uno de los elementos protegidos a su interés patrimonial.

El desarrollo del nuevo documento proporcionará una herramienta objetiva de intervención en los bienes protegidos, que permitirá al ciudadano conocer lo que supone que un bien este incluido en el catálogo de protección.

**4. POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS**

Como alternativas a la iniciativa de elaboración del documento que se plantea, cabe considerar las siguientes:

Alternativa 1. Sería mantener la situación actual. Esta alternativa no se considera viable, ya que conlleva el posible deterioro del patrimonio, así como el incumplimiento de las obligaciones legales.

**Firmado Electrónicamente**

Baliozkotze Kod.: 5AHK9GHA64F6HZDJDAE6TA4CQ | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6